RUTA 1. IBILBIDEA Oiz inguratzen / Rodeando Oiz

Ibilbide honetan Oiz mendia guztiz inguratuko dugu. Bertatik begi-bistan dugun paisaia paregabea da: Urdaibaiko kostaldea, Gipuzkoako zenbait mendikate, Gorbeia eta Durango inguratzen duten mendi zoragarriak.

Durangoko **Madalena plazatik** Frantzisko Ibarra kalea zeharkatu eta N-634 errepidea gurutzatuko dugu Iurretarantz.
Behin errepidea gurutzatuta, eskumatara dagoen lehenengo bidea hartuko dugu **San Mamés ermitarantz**. Autopista gainetik pasatuko gara eta bi kilometrotan errepide aldapatsu bat igoko dugu **San Juan ermitara** heldu arte. Hortik 300 metrora dagoen bidegurutzean ezkerretara hartuko dugu **Goiurirantz** (BI-3341) eta, aurrerago, 900 metrora, eskumara dagoen **Oiz** mendira doan bidea hartuko dugu. **Forestala** pasatu eta pista nagusiari jarraituko diogu **Oizko San Kristobal ermitara** (12,8 Km) heldu arte, irteera honen punturik altuena. Hemen ezkerretara hartuko dugu porlanezko bide estuago batetik (2 Km gutxi gora behera eta oso aldapatsuak). Beheko bidegurutzean (15 Km), eskumarantz hartuko dugu Kortaun auzorantz.
Kontuz! **Kortaunen** (18 Km) pista nagusia utziko dugu eta eskumatara, basorantz sartuko gara. Segituan, hesi bat pasatuko dugu eta jarraian beste bat.
Ondoren, 3,5 Km egingo ditugu basoko pista batetik beherantz, Ziortzara. **Ziortzako Kolejiatara** (21,5 Km) heldutakoan, BI-4401 errepidea hartuko dugu baina 800 m egin ondoren, errepide nagusia (22,3 Km) utzi eta **Muñozgurenera** igoko gaituen pista aldapatsua hartuko dugu eskumarantz. Ondorengo 2,3 Km-ak oso aldapatsuak dira eta goian (24,6 Km) ezkerretara, Muñozgurenera, hartuko dugu. Muñozgurenetik **Trabakuara** jaitsiko gara BI-4403 errepidetik. Trabakuan Berrizera doan BI-633 errepidea hartuko dugu eta, Berrizera heldu baino lehenago (34,7 Km), eskumatara dagoen Besoita auzora igoko gara. Baserri bideetatik Andikoara igo eta, ondoren, **Ereñara** jaitsiko gara eta, bertatik, Durangora helduko gara.

En esta ruta, que rodea el monte Oiz, nos encontraremos con unas vistas impresionantes: la costa de Urdaibai, algunos montes guipuzcoanos, el monte Gorbea y los imponentes montes que rodean Durango.

Salimos de la **Plaza Madalena** de Durango por la calle Francisco Ibarra y cruzamos la N-634 hacia Iurreta.
Una vez que hayamos cruzado la carretera, tomaremos hacia la derecha en el primer cruce hacia la **ermita de San Mamés**. Pasaremos por encima de la autopista y subiremos 2km por una carretera con bastante pendiente hasta llegar a la **ermita de San Juan**. A continuación, a 300m, giraremos a la izquierda dirección **Goiuria** (BI-3341). Después de 900m cogeremos el camino hacia el monte **Oiz**. Pasaremos **La Forestal** y seguiremos la pista mayor hasta llegar a la **ermita de San Cristóbal de Oiz** (km 12,8), el punto más alto de esta salida.
A continuación, a nuestra izquierda, cogeremos un camino de cemento más estrecho y con mucha pendiente (2 km más o menos). Abajo en el cruce (km 15) giraremos a la derecha hacia el barrio de **Kortaun**. Cuidado en el km 18, ya que abandonaremos la pista mayor y giraremos a la derecha entrando en el bosque. Enseguida pasaremos una valla y después otra.
Los próximos 3,5 km se desarrollarán por una pista de monte. Al llegar a la **Colegiata de Zenarruza** (km 21,5) cogeremos la carretera BI-4401. A 800m abandonaremos la carretera principal (km 22,3) y subiremos por una pista con una pronunciada pendiente situada a la derecha que nos llevará a **Muñozguren**. Estos 2,3km tienen unas pendientes muy fuertes. Al llegar arriba cogeremos a la izquierda hacia Muñozguren (km 24,6). A continuación bajaremos a Trabakua por la carretera BI-4403. En **Trabakua** tomaremos la BI-633 para bajar a Berriz, pero un poco antes de llegar (km 34,7) subiremos al barrio de Besoita situado a la derecha y a continuación a Andikoa. Por último, bajaremos a **Ereña** por caminos de caseríos y desde allí llegaremos a Durango.

ZAILTASUN MAILA NIVEL DE DIFICULTAD	IRTEERA PUNTO DE SALIDA	HELMUGA PUNTO DE LLEGADA	DISTANTZIA DISTANCIA TOTAL	IGOERA METATUA ASCENSIÓN ACUMULADA	IRAUPENA DURACIÓN APROXIMADA	ZORU MOTA TIPO DE PISTA
Oso gogorra Muy exigente	Durango	Durango	42.21 km	1.280 m	3 ordu 3 horas	80% Asfaltoa/ Asfalto 20% Pista

durango TURISMO
T 94 603 39 38
turisme@durango-udala.net

PERFILA/PERFIL



- **DURANGO**
- OIZ SAN KRISTOBAL/ SAN CRISTOBAL
- ZIORTZAKO KOLEJIATA / COLEGIATA DE ZENARRUZA
- MUÑOZGUREN
- TRABAKUA
- ANDIKOA
- **DURANGO**

ZAILTASUNA
Fisikoki gogorra da eta teknika aldetik erraza.

OHARRA
Ia dena portanezko pistetatik denez, oso apropos da zorua bustita dagoenean.

DIFICULTAD
Físicamente exigente pero no requiere mucha técnica.

NOTA
Al ser casi toda la pista asfaltada es muy apropiada cuando el suelo está mojado.

IBILBIDEA/RECORRIDO

Institutua Durango
Bizkaia
EUSKADI

RUTA 2. IBILBIDEA Baso artean / Entre bosques

Ibilbide honen ezaugarri nagusia basoak zeharkatzen dituela da. Beraz, BTTa atsegin dutenentzat interesgarriagoa da (lokatza, putzuak…).

Durangoko Madalena plazatik Frantzisko Ibarra kaletik behera, N-634 errepidea gurutzatuko dugu **Iurretarantz**. Ondoren BI-3341 errepidea hartuko dugu Goiurirantz, baina Iurretako hilerrira iristean, behealdeko eskumako pista hartuko dugu. Ondoren, zuzen jarraitu eta pinudi batera iritsiko gara. Bertan beste bidegurutze bat topatuko dugu, eskumatara hartuko dugu, beti ere, porlanezko pista bati jarraituz. Pinudiko malda gogorra da.

Pinudia zeharkatu ostean baserri batzuk daude, ezkerretara egin eta **San Juan ermitara** helduko gara. Bertan ura edateko aprobetxa dezakegu, ibilbidean ez baitugu iturri asko topatuko.

San Juanetik gorantz hartuko dugu eta BI-3341 errepidera iristean, ezkerrerantz joko dugu, **Goiurirantz**. 900 m egin eta gero, **Oiz** mendirantz doan porlanezko bidea hartuko dugu eta, 8,8 Km betetzeaz batera, **Forestalera** iritsiko gara. Hor, Oiz mendira daraman pista utzi eta ezkerreko pistatik behera hartuko dugu.

Ondorengo bidegurutzean, eskumako pistatik egingo dugu aurrera. Ondorengo 3 Km-etan, 12. a bete arte, ez dago galtzerik. Pista honetan putzu asko topa ditzakegu eta ibilbide gorabeheratsua da.

12. Km-a betetzen dugunean, ezkerreko pista hartuko dugu beherantz. 12,7 egitean kontuz, ezkerrerantz hartuko dugu, 13,4.a arte. Bihurgunean ezkerretara hartu, jarraian pista utzi eta eskumatara egingo dugu pinu artean (hau lasterbide tekniko polita da). **Maumeko** baserri batera iritsiko gara eta, haren parean, ezkerretara dagoen bidetxo batetik gora egingo dugu. Ate bi zabaldu ondoren, Maumeko atarirantz gorantz egingo dugu. Maumeko Atarian (14,6 Km), eskumako pista hartuko dugu, eta 15,3. Km-an, berriz ere eskumatara egingo dugu pista zabalagotik **Oromiñorantz**.

19. Km-an, Muniketara doan BI-3332 errepidea topatuko dugu eta ezkerretara hartuko dugu, beherantz. **Arriandiko industria-gunea** pasatu ondoren, Durangorantz abiatuko gara bidegorritik.

Este recorrido se caracteriza más que por sus vistas porque discurre por el monte, entre bosques. Por lo tanto, es más interesante para aquellos que les gusta la BTT (barro, pozos,…).

El punto de salida es **Durango**. Cruzaremos la carretera BI-3341 hacia Iurreta. Al llegar al cementerio de **Iurreta** giraremos a la derecha por la pista que lo bordea por debajo, continuaremos recto y llegaremos a un pinar, allí encontraremos otro cruce en el que también giraremos a la derecha, siempre siguiendo la pista de cemento. La pendiente del pinar es muy pronunciada.

Después del pinar llegaremos a unos caseríos, giraremos a la izquierda y llegaremos a la **ermita de San Juan**. Allí tendremos la oportunidad de beber agua, ya que durante todo el recorrido no tendremos muchas más posibilidades.

De San Juan iremos hacia arriba y al llegar a la carretera BI-3341 iremos hacia la izquierda dirección **Goiuria**. A 900 m cogeremos la pista hacia el monte **Oiz** y en el km 8,8 llegaremos a **La Forestal**. Por lo tanto, en el km 8,8 dejaremos a un lado la pista que nos conduce a Oiz para seguir por la pista de la izquierda que nos lleva hacia abajo.

En el siguiente cruce, tomaremos la pista de la derecha. En los siguientes 3 km, hasta el km 12, no hay pérdida. En esta pista podremos encontrar muchos charcos y hay que decir que es muy "rompepiernas".

En el km 12 cogeremos la pista de la izquierda hacia abajo. Cuidado en el km 12,7 porque vamos a girar hacia la izquierda hasta el km 13,4. En la curva giraremos hacia la izquierda y seguido dejaremos la pista e iremos por un pequeño camino hacia la derecha entre pinos (éste es un caminito bonito). Llegaremos a un caserío de **Magunas** en cuyo frente a la izquierda nos queda un caminito hacia arriba que tomaremos.

En el Portal de Magunas, en el km 14,6 cogeremos la pista de la derecha. Y en el km 15,3 iremos otra vez hacia la derecha para coger la pista mayor que va hacia **Oromiño**.

En el km 19 nos encontraremos con la carretera general BI-3332 que sube a Montecalvo, ahí iremos a la izquierda hacia abajo. Después de pasar el **polígono industrial de Arriandi** nos dirigiremos hacia Durango por el bidegorri de la entrada principal.

ZAILTASUN MAILA NIVEL DE DIFICULTAD	IRTEERA PUNTO DE SALIDA	HELMUGA PUNTO DE LLEGADA	DISTANTZIA DISTANCIA TOTAL	IGOERA METATUA ASCENSIÓN ACUMULADA	IRAUPENA DURACIÓN APROXIMADA	ZORU MOTA TIPO DE PISTA
Gogorra Exigente	Durango	Durango	24,46 km	734 m	2ordu 2 horas	70% Asfaltoa/ Asfalto 30% Pista

durango TURISMO
T 94 603 39 38
turisme@durango-udala.net

PERFILA/PERFIL

- **DURANGO**
- SAN JUAN ERMITA/ERMITA DE SAN JUAN
- FORESTALA/ LA FORESTAL
- MAUMEKO ATARIA/ PORTAL DE MAGUNAS
- OROMIÑO, BAKIXA/ OROBIO
- ARRIANDI
- **DURANGO**

ZAILTASUNA
Ez da oso luzea, baina bai nahiko gogorra, fisikoki zein teknikoki.

OHARRA
Euria egiten duenean putzu asko topa ditzakegu.

DIFICULTAD
A pesar de no ser muy larga es bastante exigente tanto físicamente como técnicamente.

NOTA
Los días que ha llovido nos podemos encontrar con muchos charcos.

IBILBIDEA/RECORRIDO

Institutua Durango
Bizkaia
EUSKADI

BTT

RUTA 3. IBILBIDEA Oiztik ikuspegia / Panorámica desde Oiz

Ibilbide interesgarri honek Oiz mendira eramango gaitu. Bertatik, Durangaldeko panoramika ikusgarriaz goza dezakegu. Durangotik hasita dena da gorantz. Losakanteretara heldu arte. Bertaraino, porlanezko bidea dago malda gogorrekin. Losakanteretatik Sarriara doan pista, nahiz eta tekniko samarra izan, bikaina da BTT zale amorratuentzat.

Ibilbidea Durangon hasiko dugu **Andra Maria** elizan. Hortik, **Kurutziaga kaleko** bidegorria hartuta, Zeharmendieta kaletik, San Fausto auzoa zeharkatu eta, Abadiñoko Astola auzorantz joango gara.

Abadiñoko futbol zelaira helduko gara eta Ibaizabal ibaia, gainetik, zubi txiki batetik zeharkatuz, **BI-3323** errepidera aterako gara. Hor **Traña-Matienarantz** hartuko dugu. Baina 50 m egindakoan, eskumatara hartuta, hiru aukera izango ditugu. Guk erdikoa hartuko dugu, **Lebario auzorantz**.

Baserri artetik pasa ondoren, N-634 errepidera aterako gara eta **Bilboranzko** norabidea hartuko dugu. 300 m aurrerago, errepide hau utzi eta **Markinara** doan BI-633 errepidera sartuko gara. Errotonda batera iristean, **Garairantz** egingo dugu. Lehenengo aldapa gogor hori amaitu orduko, eskumatara joko dugu **Sarria** auzora daraman bidetik.

5,2. Km-a betetzean, ezkerrean dagoen pista aldapatsutik joko dugu eta, jarraian, eskumatara Errotetatik, etxe berri asko dauden toki batera iritsi arte. Hemen, ezkerretara egingo dugu eta bide horretatik igoko gara ia-ia Garaira heldu arte. 7,9. Km-an, iturri bat pasa ondoren, eskumatara doan pista txiki batetik abiatuko gara Garai ezker aldean, goian, utziz. 8. eta 10. Km-en arteko pista zatia polita da, baina teknikoa. 10. Km-an, **Oizera** daraman pistara aterako gara eta 15,4. Km-ra arte dena gorantz izango da.

Kontuz 14. Km-an, alde batera utziko dugu ezkerreko pista, Oizko San Kristobalera darama. Eta eskumako pistatik segituko dugu 15,4. Km-ra arte. Hemen, Losakanteretan, pista nagusia utzi eta eskumako pista txikia hartuko dugu. Kontuz 16,6 Km-an, ezkerreko pistatik abiatu behar dugu-eta, jarraian eskumakotik. Ondoren, dena beherantz egingo dugu **Sarriako** bidera irten arte. Hor, ezkerrerantz, beherantz egingo dugu igo garen bide beretik; 20,5. Km-an aurrerantz egingo dugu, aldapa gogor eta motz bat igoz. Ondoren, 21,1. Km-an eskumatara hartuko dugu **Ereña** auzorantz. Behin Ereña gurutzatuta, BI-633 errepidea hartuko dugu eskumatara, Durangorantz. Jarraian, 24. Km-an, N-634 errepidetik abiatuko gara Durangorantz.

Este interesante recorrido nos llevará al monte Oiz. Allí podremos disfrutar de una fantástica panorámica del Duranguesado. Desde Durango a Losakantereta todo es ascenso. Hay un camino de cemento hasta arriba. La pista que va de Losakantereta hasta Sarria es un poco técnica pero es preciosa para los verdaderos amantes de la BTT.

Comenzaremos la ruta en Durango. Desde la Basílica de **Santa María** de Uribarri iremos al bidegorri de la **calle Kurutziaga** en dirección Astola. Por la calle Zeharmendieta y por el camino de Astola llegaremos al **campo de fútbol de Abadiño**.

Cruzaremos el río Ibaizabal y saldremos a la carretera **BI-3323** giraremos a la izquierda, dirección **Traña-Matiena**. Pero a 50m, giraremos a la derecha y nos encontraremos con tres opciones; cogeremos la del medio que nos dirige hacia el **barrio Lebario**.

Una vez pasados unos caseríos saldremos a la N-634 y giraremos a la izquierda, dirección **Bilbao**. A unos 300m, saldremos de la N-634 dirección **Markina** por la BI-633. Llegaremos a una rotonda e iremos dirección **Garai**. Casi al final de la primera recta pendiente cogeremos hacia la derecha por un camino que se dirige al barrio de **Sarria**.

En el Km 5,2 cogeremos la pista de la izquierda y subiremos por una cuesta, giraremos a la derecha, por los molinos llegando a una zona con chalets nuevos. A continuación giraremos a la izquierda y subiremos hasta llegar casi a Garai. En el Km 7,9 y después de pasar una fuente iremos por una pequeña pista a la derecha dejando Garai arriba, a la izquierda. Entre el km 8 y el km 10 encontraremos una pista muy bonita pero a la vez mas técnica. En el km 10 saldremos a la pista que nos llevará a **Oiz** y hasta el km 15,4 será todo pendiente. Cuidado en el km 14, no debemos ir por la pista de la izquierda ya que nos llevaría a San Cristóbal de Oiz. En el km 14 seguiremos por la pista de la derecha hasta el Km 15,4.

Aquí, en **Losakantereta** dejaremos la pista mayor y cogeremos la pequeña pista de la derecha. Cuidado en el km 16,6, tendremos que coger la pista de la izquierda y poco después la de la derecha.

Después iremos hacia abajo hasta llegar al camino de **Sarria**. Aquí giraremos hacia la izquierda y bajaremos por el mismo sitio por el que subimos, pero esta vez en el km 20,5 continuaremos recto subiendo por una pendiente pronunciada pero a la vez corta. Después en el km 21,1 iremos hacia la derecha en dirección **Ereñaga**. Una vez que hayamos cruzado Ereñaga tomaremos la carretera BI-633 a la derecha, en dirección Durango. Seguido, en el km 24, cogeremos la carretera N-634 para llegar a Durango.

ZAILTASUN MAILA NIVEL DE DIFICULTAD	IRTEERA PUNTO DE SALIDA	HELMUGA PUNTO DE LLEGADA	DISTANTZIA DISTANCIA TOTAL	IGOERA METATUA ASCENSIÓN ACUMULADA	IRAUPENA DURACIÓN APROXIMADA	ZORU MOTA TIPO DE PISTA
Erreza Medio	Durango	Durango	26 km	731 m	1ordu 45min 1hora 45min	80% Asfaltoa/ Asfalto 20% Pista

durango TURISMO
T 94 603 39 38
turisme@durango-udala.net

PERFILA/PERFIL

- DURANGO
- ASTOLA
- SARRIA
- GARAI
- FORESTALA LA FORESTAL
- LOSAKANTERETA
- SARRIA
- EREÑA
- DURANGO

ZAILTASUNA
Teknikoagoa da fisikoa baino (Losakanteretatik jaitsiera dela eta).

BHARRA
Losakanteretako jaitsiera teknikoa samarra da baina oso polita.

DIFICULTAD
Es más técnica que física (por la bajada desde Losakantereta).

NOTA
La bajada desde Losakantereta requiere un poco de técnica pero es preciosa.

IBILBIDEA/RECORRIDO



Institutua Durango
Bizkaia
EUSKADI

RUTA 4. IBILBIDEA Kofradien bidea / Marcha de las Cofradías

Oso ibilbide polita da Oiz eta Mugarra aldetik gabiltzalako. BTT zale amorratuentzat aproposa.

Durangoko **Madalena plazatik** abiatuko gara, Frantzizko Ibarra kalea zeharkatu eta N-634 gurutzatuko dugu **Iurretarantz**. Behin errepidea gurutzatuta, BI-3341 errepidea hartuko dugu Goiurirantz. **Goiuria** auzoa atzean utzita, ibilbidearen 5,5 Km-an **Forestalera** eramango gaituen pista aldapatsua hartuko dugu ezkerretara Forestaleraino.

Hor, **Oizko** errepidea hartuko dugu 9,5. Km-raino eta, hor, bide nagusia utzi eta ezkerretara dagoen pistatxo bat hartuko dugu, Maumeko ataririantz eramango gintuzkeena. Hori utzita, ezkerretara dagoen pista estua hartuko dugu; zati hau nahiko teknikoa da. Ondorengo bidegurutzean, ezkerrerantz, gorantz hartuko dugu eta bi kilometro eta erdian gorabeherak izango ditugu. Ezkerretara eta eskumatara dauden pistak alde batera utziz, zuzen jarraituko dugu ia 12. Km-a bete arte. 12.etik 16,5. Km-ra, Laixiarrera iritsi arte, aukera desberdinak edukiko ditugu.

Laixiarretik pista bat hartuko dugu, berriro ere, BI-3341 errepidera eramango gaituena; pista honek hasieran beheranzko joera badu ere, gorabehera asko ditu. BI-3341 errepidea hartzen dugunean, 300 m-ra eskumatara dagoen pista hartuko dugu; lokatz eta putzu asko aurki ditzakegu. Hurrengo bidegurutzean, ezkerretara egingo dugu harrizko aldapa gogor eta labainkor batetik. Aldapa igotakoan, hurrengo bidegurutzean eskumatik abiatuko gara jaitsiera batetik. Jaitsitakoan, berriz ere, eskumatara hartuko dugu. Zuzen jarraitu hurrengo bidegurutzeraino. Hurrengoan, ezkerretara joko dugu; jaitsiera arriskutsu samarra da. Erdi aldera aldapa gogor bat dago, neguan lokatz askorekin igotzeko zaila.

Aurrerantz jarraituta **Bakixa** auzora iritsiko gara. Hor, 23,5. Km-an, baserriak ezkerretara utziko ditugu eta asfaltozko bidea hartuko dugu **Muniketarako** bidera iritsi arte. Gero, eskumatara egingo dugu, BI-3332 errepidera. Jarraian, 24,9. Km-an, 200 m ingurura ezkerretara hartuko dugu (kontuz errepidea zeharkatzean).

Pista estu batean sartuko gara (kontuz txakurrekin), berriz ere, N-634 errepidera iritsi arte. A-8 autopistaren azpitik pasatu eta, jarraian, N-634 errepidea hartuko dugu **Zornotzarantz**, baina segituan, 26. Km-an, 200 m-ra gutxi gorabehera, ezkerrerantz hartuko dugu, **Bernabeiti** auzora joateko (kontuz errepidea zeharkatzean). Trenbidea pasatuko dugu eta bidegurutzean ezkerretara. Aurrera egingo dugu ezkerrean erreka dugularik. Hurrengo bidegurutzean, berriz ere, ezkerretara hartuko dugu eta errekatxo baten gainetik igaroko gara.

Kontuz 27,4. Km-an gutxi gorabehera, hiru pista estu topatuko ditugu-eta. Guk erdikoari jarraituko diogu (ezkerrekoa oso aldapatsua da eta eskumakoak urrundu egiten gaitu). Hortik, 27,4. Km-tik ia 29. Km-ra dena gorantz da eta nahiko bide teknikoa topatuko dugu. **Gibelatik** gora, azkenengo 700 m-ak, harrizko bidetik egingo ditugu, eta eskertzen da. 29. Km-an **Marmoladarantz** hartuko dugu, baina **Landa Ederrara** heldu aurretik, 500 m aurrerago, 29,5. km-an, ezkerreko pistatik joko dugu **Santa Luziarantz**. Santa Luzia pasa eta, 32,9. Km-an, pista nagusi hau utzi eta ezkerretara dagoen pistatxoa hartuko dugu (San Andres ermitara heldu baino lehenago). Dena behera eta zuzen egin ondoren, **Orozketara** doan BI-4331 errepidera irtengo gara. Hor eskumatara, beherantz, hartuko dugu eta, **Santa Apolonia** ermita ondotik pasatuta, Durangora iritsiko gara.

Es una salida preciosa que nos acerca a los montes Oiz y Mugarra. Idónea para los amantes de la BTT.

Comenzaremos la ruta en la **plaza Madalena** de Durango. Tomaremos la calle Francisco Ibarra y cruzaremos la carretera N-634 hacia **Iurreta** y cogeremos la BI-3341 hacia **Goiuria**. Pasaremos el barrio de Goiuria y en el km 5,5 cogeremos una pista con una fuerte pendiente situada a la izquierda que nos llevará a **La Forestal**.

En La Forestal tomaremos la carretera de **Oiz** hasta el km 9,5 donde dejaremos la pista mayor y entraremos en una pequeña pista situada a la izquierda. Aquí, dejando la pista que nos llevaría al Portal de Magunas, cogeremos otra pequeña pista también situada a la izquierda que es bastante técnica. Después llegaremos a un cruce en el que giraremos a la izquierda y subiremos. Tendremos 2,5 kilómetros de bajadas y subidas. Seguiremos recto dejando a un lado las pistas de la derecha y de la izquierda hasta llegar al km 12. Del km 12 al 16,5 tendremos diferentes posibilidades hasta llegar a Lasiar. En **Lasiar** volveremos a coger una pista para llegar a la carretera BI-3341, esta pista, aunque empieza con una bajada, está llena de subidas y bajadas.

Una vez hayamos cogido la carretera BI-3341 tomaremos una pista a unos 300 metros situada a la derecha. Podremos encontrar algunos charcos y bastante barro. En este cruce giraremos a la izquierda por una bajada bastante resbaladiza y fuerte. Una vez hayamos bajado, en el cruce giraremos hacia la derecha por una bajada y al final volveremos a girar a la derecha. Continuaremos recto hasta el siguiente cruce donde tomaremos hacia la izquierda por otra pendiente descendente y bastante peligrosa, en la cual en invierno suele haber mucho barro por lo que subirla suele ser muy complicado.

Continuaremos recto y llegaremos al barrio de **Bakixa**. Al llegar a este barrio en el km 23,5 dejaremos unos caseríos a mano izquierda y cogeremos un camino asfaltado hasta llegar al camino de **Montecalvo**. Al llegar a esta carretera iremos hacia la derecha donde cogeremos la carretera de BI-3332. Seguido en el km 24,9 a unos 200m iremos hacia la izquierda (cuidado al cruzar la carretera).

Ahora entraremos en una pequeña pista (cuidado con los perros) hasta llegar de nuevo a la carretera general, por debajo de la autopista A-8. Poco después cogeremos la carretera N-634 en dirección **Amorebieta**. En el km 26, a unos 200 metros más o menos iremos hacia la izquierda hacia el barrio de **Bernabeitia** (cuidado al cruzar la carretera). Cruzaremos las vías del tren y en el cruce iremos hacia la izquierda. Continuaremos hacia delante dejando el río a nuestra izquierda. Llegaremos a otro cruce y también giraremos a la izquierda pasando por un río. En el km 27,4 más o menos, nos encontraremos con 3 pequeñas pistas, nosotros seguiremos por la del centro (la de la izquierda tiene una fuerte pendiente y la de la derecha nos alejaría).

De aquí, del km 27,4 al km 29 será todo subida y bastante técnica. De **Gibela** hacia arriba, en los últimos 700m encontraremos un camino de piedras el cual se agradecerá. Por lo tanto, en el km 29 iremos en dirección a la **Cantera de Mármol** pero antes de llegar a **Landa Ederra**, en el km 29,5, cogeremos la pista de la izquierda hacia Santa Lucía. Una vez hayamos pasado **Santa Lucia**, en el km 32,9, dejaremos la pista mayor y cogeremos una pequeña pista situada a la izquierda (antes de llegar a la ermita de San Andrés). Bajaremos todo recto y después saldremos a la carretera BI-4331, es decir, la que nos llevará hacia **Orozketa**. Aquí iremos hacia abajo y a la derecha pasando por la ermita de **Santa Apolonia** hasta llegar a Durango.

ZAILTASUN MAILA NIVEL DE DIFICULTAD	IRTEERA PUNTO DE SALIDA	HELMUGA PUNTO DE LLEGADA	DISTANTZIA DISTANCIA TOTAL	IGOERA METATUA ASCENSIÓN ACUMULADA	IRAUPENA DURACIÓN APROXIMADA	ZORU MOTA TIPO DE PISTA
Oso gogorra Muy exigente	Durango	Durango	40 km	1.036 m	4 ordu 4 horas	50% Asfaltoa/ Asfalto 50% Pista

durango TURISMO
T 94 603 39 38
turismo@durango-udala.net

PERFILA/PERFIL



- **DURANGO**
- GOIURIA
- FORESTALA/ LA FORESTAL
- MAUMEKO ATARIA/PORTAL DE MAGUNAS
- LAIXIAR/LASIAR
- BAKIXA
- BERNABEITIA
- GIBELA
- SANTA LUZIA /SANTA LUCÍA
- **DURANGO**

ZAILTASUNA
Bai fisikoki bai teknikoki, ibilbide gogorra da.

BHARRA
Putzu, lokatz... asko topa dezakegu.

DIFICULTAD
Exigente a nivel tanto técnico como físico.

NOTA
Posibilidad de encontrarnos con pozos, barro...

IBILBIDEA/RECORRIDO

Institutua Durango
Bizkaia
EUSKADI

RUTA 5. IBILBIDEA Anboto inguratzen / Rodeando Anboto

Ibilbide honek guretzat mitikoa den Anboto mendira hurbiltzen gaitu. Anboto inguratuko dugu Urkiolako Parke Naturaletik barrena, mendiaz gertu gertutik gozatzeko aukera ematen digu-eta.

Durangoko **Andra Mari Basilikatik** abiatuta Ibaizabal Ikastolaraino joango gara. Hor, Ikastola atzean utziz, aldapa gogor bat igoko dugu Artazola auzorantz. Jarraian (2,2 Km), eskumatara hartuko dugu BI-632arekin paralelo doan bide estu batetik.

Abadiñoko txaletetara helduko gara eta, horiek goialdetik zeharkatu, lantegi batera (3,8 Km) iritsi eta gorantz hartuko dugu erromatar bidetik. Horri jarraituz, **Mendiolako** bidea (4,5 Km) topatuko dugu. Hor, eskumatara, gorantz hartuko dugu eta Mendiolara iristean, aurrera egingo dugu; ezkerretara utziko dugu **Sagasta auzorantz** doan bidea. Gutxira, **Atxarteko harrobietara** iritsiko gara (7,2 Km). Zuzen garamatzan pista hartu, bertatik zubi bat pasatu eta malda laburra bezain gogorra igoko dugu. Jarraian, aldapa txikia duen baso-pista batean sartuko gara, baserri batera daraman pista eskumatara utziz. Ondoren, eskumatara bihurgunea dago eta ezkerretara baserri bi. Maldak pixkanaka gogortzen doaz eta ezkerretara utziko dugu **Asuntzara** (Pol-Pol) zuzenean garamatzan bidea. Igoera, 180º dituen bihurgune batean amaitzen da, 10,5. Km-an, gutxi gorabehera. Azken malda horretan iturri bat dago. Hortik aurrera zati erosoa da eta Anboto, Alluitz eta Aitxiki mendien bistak ikusteko aukera paregabea izango dugu.

Txakurzulora helduko gara (12,8 Km) eta BI-623 errepidea hartuko dugu, **Urkiolako** mendatera igoko gaituena. Bertara heltzean (14 Km) errepide nagusia utzi eta ezkerreko bidea hartuko dugu. Eskumatara Santutegia ikusiko dugu eta ezkerretara aterpetxea eta iturri bat. Aparkalekua ezkerretara utzita, gorantz doan pistatik segituko dugu. **Asuntzako** (Pol-Pol) landetara iritsiko gara, bertan (17,8 Km) iturri bat dago burdin ura dariola. Zuzen jarraitu, Anbotoko mendilerroa ezkerretara utzita, 500 m-ra gutxi gorabehera, igoera gogor baten ostean, bidegurutze batera iritsiko gara. Eskumatara doan bidea hartuko dugu Zabalandirantz. Ezkerretara Anbotora igotzeko bide-seinalea ikusiko dugu. **Zabalandiko** zelaira heltzean (20 Km), aurrera jarraituko dugu zuzen, Betsaideranzko jaitsiera luze bat hasiz. Informazio karteletara heltzean, aurrera egingo dugu **Tellamendirantz**, hau da, pista beretik jaisten jarraituko dugu.Laster, zelai txiki batera helduko gara eta harri txikerrak dituen bidetik jaitsiko gara, zuzen. Seinaleztatu gabeko bidegurutze batera iristean, ezkerreko goranzko bidea hartuko dugu (22,2 Km). Gure ezkerretara etxola bat eta bi bide utziko ditugu eta aurrera jarraitu.

Landa batera iristean, aurrera eginez, ezkerreko bidexkatik joango gara (23,2 Km). Baso batera helduko gara; oso bide polita aurkituko dugu zorua harri, hosto eta sustraiekin. Horri jarraituz, aterpe batera iritsiko gara eta ezkerrean utziko dugu. 25,5. Km-an, gutxi gorabehera, bidegurutze bat aurkituko dugu hiru aukerekin, guk erdikotik hartuko dugu, **Betsaiderantz**. Hortik, Betsaidera helduko gara (26,9 Km), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa elkartzen diren lekura, hain zuzen ere. Bertan, ezkerretik doan bideari jarraituko diogu. Aurrerago (28,6 Km), ezkerreko bidea hartuko dugu, bestela Elorrion agertuko ginateke. Bide horretatik, jaitsiera luze baten ondoren, BI-4332 errepidera iritsiko gara. Eskumatara eginez, **Apatamonasteriora** iritsiko gara. Bertan BI-632 errepidean, ezkerretara hartu eta Durangora iritsiko gara.

Esta salida nos acerca al que para nosotros es un monte mítico, el Anboto. Rodearemos este monte adentrándonos en el Parque Natural de Urkiola, pudiendo así gozar de la montaña de cerca.

Salimos de la **Basílica de Santa María de Uríbarri** de Durango hacia la Ikastola Ibaizabal. Desde ahí, dejando atrás la Ikastola, subimos una fuerte pendiente en dirección al barrio de Artazola.

Cogemos un pequeño camino a la derecha (km2,2) que discurre paralelo a la carretera BI-632. Llegamos a unos chalets en **Abadiño** que bordeamos por la parte de arriba hasta llegar a una fábrica (km3,8) donde tomamos un camino romano que va hacia arriba y nos llevará al camino de **Mendiola** (km 4,5). Aquí giramos hacia la derecha y hacia arriba pasando Mendiola y continuamos recto, dejando a la izquierda el camino que nos llevaría al **barrio de Sagasta**. Poco después llegamos a las **canteras de Atxarte** (km 7,2). Recto, cogemos la pista, pasamos por un puente y por una corta pero fuerte pendiente. Entramos en una pista forestal con una pequeña pendiente, dejando a la derecha la pista que nos llevaría a un caserío. Después encontramos una curva a la derecha y dos caseríos a la izquierda. Las pendientes son cada vez más fuertes y dejamos a la izquierda el camino que nos llevaría a **Asuntza** (Pol-Pol). La subida acaba en una curva de 180º (km10,5). En esta última subida encontraremos una fuente. De aquí en adelante es un camino muy cómodo y tendremos la oportunidad de disfrutar de las vistas de los montes Anboto, Alluitz y Aitxiki.

Llegamos a **Txakurzulo** (km12,8) y cogemos la carretera BI-623 que nos llevará a **Urkiola** (km14). Una vez allí dejamos la carretera general y cogemos el camino de la izquierda. A la derecha veremos el Santuario de Urkiola y a la izquierda un refugio y una fuente. Dejamos el parking a la izquierda, y seguido cogemos una pista hacia arriba. Llegamos a las campas de **Asuntze** (Pol-Pol), allí (km 17,8) encontraremos una fuente de hierro. Continuamos recto, dejando a la izquierda la cordillera de Anboto y a 500m más o menos, después de una fuerte pendiente llegamos a un cruce. Cogemos el camino de la derecha hacia **Zabalandi**. Al llegar a las campas de Zabalandi (km 20) seguimos recto y empezamos un largo descenso hacia Besaide. Una vez en los carteles de señalización seguimos recto hacia **Tellamendi**, es decir, continuamos bajando por la misma pista. Enseguida llegamos a una pequeña campa y seguimos bajando recto por un camino de piedrillas. Al llegar a un cruce sin señalizar, giramos a la izquierda y hacia arriba (km 22,2). A nuestra izquierda dejamos una chabola y dos caminos.

Al llegar a una campa cogemos un pequeño camino hacia la izquierda (km 23,2). Llegaremos a un bosque, y encontraremos un bonito camino de piedras, hojas y raíces. Continuando ese camino llegamos a un refugio que dejamos a la izquierda. En el km 25,5 más o menos nos encontramos ante un cruce con tres opciones, cogemos el camino del medio, dirección Besaide. Por aquí llegamos a Besaide (km 26,9). **Besaide** es el punto en el que se juntan Bizkaia, Araba y Gipuzkoa. Una vez allí seguimos el camino de la izquierda. Siguiendo la pista cogemos el camino de la izquierda (km28,6), ya que si no apareceríamos en Elorrio. Por lo tanto, después de una larga bajada llegaremos a la carretera BI-4332. Girando a la derecha llegaremos a **Apatamonasterio** y finalmente allí cogeremos la carretera BI-632 hacia Durango.

ZAILTASUN MAILA NIVEL DE DIFICULTAD	IRTEERA PUNTO DE SALIDA	HELMUGA PUNTO DE LLEGADA	DISTANTZIA DISTANCIA TOTAL	IGOERA METATUA ASCENSIÓN ACUMULADA	IRAUPENA DURACIÓN APROXIMADA	ZORU MOTA TIPO DE PISTA
Oso gogorra Muy exigente	Durango	Durango	41.37 km	1.085 m	3 ordu 15 min 3horas 15min	30% Asfaltoa/ Asfalto 70% Pista

durango TURISMO
T 94 603 39 38
turisme@durango-udala.net

PERFILA/PERFIL

- DURANGO
- ATXARTE
- URKIOLA
- ASUNTZA (POL-POL)
- ZABALANDI
- BETSAIDE
- APATAMONASTERIO
- DURANGO



ZAILTASUNA
Ibilbide gogorra da, bai fisikoki bai teknikoki.

OHARRA
Nahiz eta fisikoki eta teknikoki ibilbide gogorra izan, Durangaldean dugun irteera politenetarikoa da.

DIFICULTAD
Muy exigente tanto técnicamente como físicamente, mente.

NOTA
A pesar de ser una salida muy exigente, es de las salidas más bonitas que tenemos en el Duranguesado.

IBILBIDEA/RECORRIDO

Bizkaia

EUSKADI